

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Amurrioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko irailaren 20an hartutako erabakiaren laburpena; horren bidez deialdia egiten da 2018an egoera guztiz zaurgarrian dauden herrialdeetako haurrak udan Amurrion hartzeko programetarako dirulaguntzetarako

BDNS (identifikatzailea): 416505

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>:

Lehenengoa. Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko erakunde, elkarte eta beste entitate batzuk, deialdiaren xedearekin bat datozen ekintzak gauzatzen dituztenak, betiere dagokion eran eraturik eta dagokien erregistroan formalki erregistraturik badaude dirulaguntzetarako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino urtebete lehenagotik, gutxienez, eta, horrez gain, egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoan badute.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da herrialde guztiz zaurgarrietatik datozen haurrak hartzeko 2018ko programek eragindako gastuak ordaintzea, haiek Amurrioko udalerriko familietan emango dituzten oporraldietan zehar. Programa horiek adingabeen ongizatearen alde dira, bai eta gure udalerriko biztanleen artean elkartasunaren aldeko egiatzko kultura bat sortzearen alde ere.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Amurrioko Udalaren osoko bilkurak 2018ko ekainaren 4an onartu zituen, eta ondoren haien testu osoa 2018ko uztailaren 27ko ALHAOn, 86. zenbakian, argitaratu zen.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 6.000,00 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Hogeita hamar egun natural, laburpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Amurrio, 2018ko irailaren 25a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA